

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK

LURRAREN ETA INGURUMENAREN ZIENTZIETAKO AZTERKETA

2008/2009 IKASTURTEA

JARRAIBIDEAK:

Bi aukeretako bat hautatu, eta bere lau galderei erantzun.

A AUKERA

1. aztergaia (2,5 puntu)

Arriskuak.

1.1. Arriskuak: arrisku kontzeptua. Arrisku motak. Arriskugarritasunaren eta arriskuaren arteko aldeak. Arriskuen plangintza.

1.2. Zein dira Lurrean arrisku sismikorik handiena duten eskualdeak, eta zergatik? Zer nolako aurreneurriak hartu beharko lirateke hondamendiak hain handiak ez izateko?

2. aztergaia (2,5 puntu)

Ur-baliabideak.

2.1. Eutrofizazioa: kontzeptua, kausak eta efektuak.

2.2. Zein helburu ditu ur zikinen arazketak? Azaldu laburki tratamendu-prozesua.

3. aztergaia (2,5 puntu)

Ekosistema

3.1. Aipa eta azal itzazu laburki ekosistema baten maila trofiko adierazgarrienak.

3.2. Biodibertsitatea galtzea: kausa eta efektuak.

4. aztergaia (2,5 puntu)

Ekosfera.

4.1. Azal itzazu gaur egun hiri hondakin solidoak kudeatzeko dauden metodoak. Ordena itzazu handienetik txikienera dauden tratamendu-metodoak beren lehentasunaren arabera. Proposa itzazu herritarrak egin ditzakeen bi jarduera zehatz.

4.2. Aipa eta azal itzazu kontuan izan behar diren faktoreak kontrolatutako zabortegei bat egin, eta ingurumenari egin diezazkiokeen kalteak gutxiagotzeko.

BAUKERA

1. aztergaia (2,5 puntu)

Energia-baliabideak.

1.1. Azal ezazu fisio eta fusio nuklearraren arteko aldea. Zein da bietatik berriztagarria eta zergatik? Zein da fusioaren arazo nagusia?

1.2. Aipatu hondakin erradioaktiboak gordetzeko balizko tokiak, eta esan zein liratekeen beren abantailak eta alderdi txarrak.

2. aztergaia (2,5 puntu)

Kanpoko sistema fluidoak: atmosfera.

2.1. Deskriba ezazu atmosferaren osaera gutxi gorabeherakoa, eta eman bera osatzen duten geruzen izenak eta ezaugarriak.

2.2. Azal ezazu atmosferak betetzen duen funtzio erregulatzailerak Lurraren kliman.

3. aztergaia (2,5 puntu)

Kanpoko sistema fluidoaren dinamika.

3.1. Eskema baten bidez, azal ezazu nola gertatzen den prezipitazio mota bakoitza, bere jatorriaren arabera: a) konbektiboa, b) orografikoa eta c) frontala edo ziklonikoa.

3.2. Aipa itzazu klima-zonazioan eragina duten bi faktore eta azaldu beren efektuak.

4. aztergaia (2,5 puntu)

Ekosfera

4.1. Esan ezazu zein abantaila biologiko duen espezie-dibertsitateak lehiaketa eta zoko ekologikoari dagokionez.

4.2. Zertan datza *biodibertsitatea*? Defini itzazu biodibertsitatearen hiru mailak: espezie-biodibertsitatea, biodibertsitate genetikoa eta ekosistema-dibertsitatea.